

Kaixooo Txipristinkide!

Zer moduz zaudete? Zer uste zenuten zuetaz ahaztuta ginela ala? Hemen gara berriz ere dena emateko prest! Guri ere luzea egin zaigu etenaldi hau, baina inoiz baino gogotsuago gaude!

Lehenik eta behin, mezu honetan atxikitutako bi ziurtagiri horiek **zehatz-mehatz irakurtzea** gomendatzen dizuegu. Lehenengo ziurtagiria Txipristin Aisialdi Taldeko Kontingentzia Plana da eta bestea Erantzukizunpeko Adierazpena da.

- Lehenengoan zein arau beteko ditugun eta bete beharko dituzuen adierazten du, COVID 19-aren lege guztiak kontutan hartuz.
- Bigarrena haur edo nerabearen guraso, tutore edo arduradun legalaren eta Txipristinen arteko hitzarmen bat da, hau da, zuek gure Kontingentzia Plana arretaz irakurri eta onartzen duzuela adierazten duen ziurtagiria. Hau onartu ezean edo sinatu ezean, ulertuko dugu ez zaudetela gure Kontingentzia Planarekin ados, beraz haur edo nerabe horrek ezingo du parte hartu gure ekintzetan.
- Paper kontuak alde batera utziz, oraingoan plan berezi batekin gatoz, motorrak martxan jartzeko eta lehenengo kontaktua izateko:
 - Noiz: Otsailaren 12, 13 eta 14. (ostirala, larunbata eta igandea)
 - Non: Herri osoan zehar.
 - Nor: Edonor.
 - Ekintzaren azalpena: Herri osoan zehar QR kode batzuk itsatsita egingo dira, QR horiek mobilarekin eskaneatuz gero POKEMON bat aterako da. Zuen helburua ahalik eta Pokemon gehien aurkitzea izango da. Pokemon bat aurkitzen baduzue, astelehena baino lehen aurkitutako POKEMON GUZTIEN argazkia joxelugamelua@gmail.com emailera bidali. Astelehenean iragarriko dugu talde irabazlearen izena Insta, Facebook eta baita email bidez ere. Ekintza honetan parte hartzeko zer egin behar da??

EKINTZAN PARTE HARTZEKO URRATSAK:

1. **GARRANTZITSUENA:** Guraso, tutore edo arduradun legalak Kontingentzi Plana eta Erantzukizunpeko Adierazpena IRAKURRI eta SINATU.
2. Gehienez 4 pertsonako taldeak egin. (Lagunekin, gurasoekin, bakarrik... jolas daiteke)
3. joxelugamelua@gmail.com emailera mezua bidali honako 5 puntuekin:
 - a. Taldearen izena
 - b. Parte hartzaileen izenak
 - c. Adina edo maila
 - d. Erantzukizunpeko Adierazpena Guraso, tutore edo arduradun legalak **sinatuta**.
 - e. Telefono zenbakia

Hori egin eta gero prest gaude jolasteko!
Animo eta anima zaitetze, gora bihotzak!!!!!!

Aupa Txipristin berpiztuta!

Txipristin Aisialdi Taldea
Zuberoa kalea 12, behea
20800 Zarautz
txipristinaisialdia@gmail.com





KONTINGENTZIA PLANA

2020/21 IKASTURTEA

TXIPRISTIN AISIALDI TALDEA

1. Sarrera

Txipristin Aisialdi Taldeak hezkuntza formalaren curriculum integralean atxikitu gabe dauden hainbat gaitasun herriko gazteekin landu eta hauei bizikidetza eredu alternatiboak mahaigaineratzeko helburua duen taldea boluntarioa da, azken urteotan herriko ehundaka gazterekin lanean aritu dena eta gaur egungo egoera ikusita ere jardun berarekin jarraitzeko asmoa duena.


Izan ere, azken hilabeteetan bizi izan dugun eta luzerako doan krisi honek utzi digun testuingurua dela eta, gazteen egoera ez da batere samurra, eta hauek ase gabe dituzten hainbat behar sarri alde batera uzten direlakoan gaude. Hau dela eta, gure jarduna sekula baina garrantzitsuagotzat jotzen dugu.

Beraz, egoera kontuan hartuta eta guztion osasuna oinarri dugula, aurten ere, ahal den neurrian, azken urteotan eskeini izan dugun zerbitzuarekin modu seguruan eta ondorioz COVID-19aren pandemiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriak hartuz, ondorengo dokumentuan aurkeztuko ditugun hainbat alternatiba mahaigaineratu ditugu.

Esan beharra dago, alternatibak diseinatzerako orduan indarrean dauden ondorengo legeak izan ditugula ardatz:

- AGINDUA, 2020ko uztailaren 28koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita agindu honen eranskina: Agindua, 2020ko ekainaren 18koa, Osasuneko sailburuarena, COVID-19ak eragindako osasun- krisialdiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriei buruzkoa, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. fasea gainditu eta gero.
- AGINDUA, 2020ko ekainaren 10ekoa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, haurren eta gazteen hezkuntza-aisialdiko jardueri berri nola ekin arautzen duena.

Honez gain, garrantzitsua iruditzen zaigu gure jardunean gertatu litekeen ororen erantzukizun osoa Txipristin Aisialdi Taldeak hartzen duela azpimarratzea, eta honekin lotuta, gure aktibitateetan parte hartu ahal izateko guk jarritako baldintzak zintotasunez bete beharko direla. Bestalde, esan kontingentzi plan hau indarrean egongo dela 2020/21 ikasturte osoan zehar, egoerak bultzatutako lege aldaketa nabarmenik izan ezean.



2. Zer egin gure jardueretan parte hartzeko

Gure jardueretan parte hartu ahal izateko ezinbestekoa izango da, aktibitatea gauzatuko den lekura bertaratu aurretik, ondorengo puntuak jarraitzea:

- Ekintza burutuko den lekura bertaratu aurretik ezinbestekoa izango da etxean gorputzaren tenperatura hartzea eta hau 37 gradu baina altuagoa bada, ezingo da aktibitatean parte hartu, ezta bertaratu ere.
- Bestalde, ezingo da ekintzetan parte hartu ondorengo sintomaren bat izanez gero, hala nola, eztula, arnasa hartzeko zailtasuna, sintoma atipikoak (odinofagia, anosmia, ageusia, giharretako minak, beherakoak, bularraldeko mina eta zefaleak).
- Honez gain, ezingo du ekintzetan parte hartu, ekintza eguna baina 14 egun lehenago COVID-19 birusa (sitomaduna edo sintoma gabea) izan duen pertsona batekin kontaktu zuzena izan duen pertsona orok.

Aurrez aipatutako puntuetan deskribitutako egoeraren bat gertatuz gero asko eskertuko genuke telefono (626601181) edo email (txipristinaisialdia@gmail.com) bitartez guri jakinaraztea.

Azkenik, gure aktibitateetan parte hartu ahal izateko ezinbestekoa izango da "Erantzukinak adosten diren ziurtagiria" gurasoen sinadurarekin ekintza bertan aurkeztea. Ziurtagiri hau ekintza bat burutuko den aldiro ekarri beharko da, eta ekarri ezean ezingo da aktibitatean parte hartu.

3. Jardueretan hartuko ditugun neurriak

Aurrez aipatutako legeak indarrean dauden bitartean ondorengo neurriak jarraituko dira, baina izan daiteke egoerak behartutako lege aldaketaren bat edo beste izatea, eta hau gure neurrietan isladatua izatea:

- Musukoaren erabilera derrigorrezkoa izango da leku itxietan. Aire zabalean eta pertsona gutxiko eremuetan aldiz (adibidez mendian) musukoaren erabilera ez da derrigorrezkoa izango, baina pertsonarteko 2 metroko segurtasun-tartea mantendu beharko da.
- Aktibitatearen hasieran eta amaieran eskuak gel hidroalkoholikoa erabiliz garbituko dira, baita erabiliko dugun materialarekin kontaktua izan aurretik eta ondoren ere. Gel hidroalkoholiko hau begiraleok eskeiniko dugu, eta gazteei bere erabileraren nondik norakoak azalduko dizkiegu.
- Ekintzak leku itxietan egiten baditugu, begiraleek gunea modu egokian aireztatzeko



ardura hartuko dugu.

- Aurrera eramango ditugun ekintzetan ahal den neurrian kontaktu fisikoa ekiditen ahaleginduko gara, eta ekiditea ezinezkoa den uneetan musukoaren erabilera derrigorrezkoa izango da.
- Gure aktibitateetan osatuko ditugun taldeak ez dira 15 pertsona baino handiagoak izango, eta talde bat baino gehiago egotekotan, burbuilaka funtzionatuko dugu, talde arteko kontaktua ekidinez.
- Burutuko ditugun ekintza eta irteeretan ezingo da inondik inora janaria edo edaria elkarbanatu

4. Positibo baten kasuan zer egin

Guk antolatutako ekintza edo irteera batean parte hartu duen gazteren batek, ekintzan parte hartu eta hamar eguneko epean COVID-19 birusaren PCR frogan positibo emanez gero, ezinbestekoa izango da Txipristin Aisialdi Taldeari jakinaraztea, hartu behar ditugun neurriak modu egokian hartu ahal izateko.





ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

2020/21 IKASTURTEA

TXIPRISTIN AISIALDI TALDEA

Adingabearen...:

- Izen-abizenak:
- Maila:
- Ikastetxea:

Guraso, tutore edo arduradun legalaren...:

- Izen-abizenak:
- NAN:
- Telefono zenbakia:
- Emaila:

Nire erantzukizunpean adierazten dut TXIPRISTIN AISIALDI TALDEAren **KONTINGENTZIA PLANA arretaz irakurri dudala**, parte hartzeko baldintzak onartzen ditudala, nire konpromisoa adierazten dudala nahitaezko higiene- eta prebentzio-neurriak betetzeko eta nire gain hartzen dut COVID-19arekin kutsatzeko aukeraren erantzukizun erabatekoa.

Eguna:

Sinadura: